

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Solana kontseilariak “Europea-España 2017” biltzarraren amaiera ekitaldian parte hartu du

*Nekazaritza eta elikagaien ekoizpenarekin lotutako lanbide heziketaren inguruan hausnartu dute 10 erkidegoetako ordezkariak aste honetan INTIAn egindako biltzarrean*

Ostirala, 2018.eko otsailak 9

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumenarekin lotutako formazioa bultzatzea helburu duen Asociación para la promoción de la Formación Agraria, Alimentaria y Medioambiental Europea elkartearen “Europea-España 2017” batzar-itxieran izan da gaur. Hainbat erkidegotako adituek nekazaritza eta elikadura sektoreko heziketa-eskaintzan dituzten esperientziak eta proiektuak elkartrukatu dituzte.



Biltzarreko parte-hartzaileak Hezkuntza kontseilariarekin.

Aste honetan zehar INTIAn burutu den biltzarrean izan dira Andaluzia, Extremadura, Valentzia, Murtzia, Aragoi, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gaztela eta León, Kanariar Uharteak eta Nafarroako ordezkariak. Itxiera ekitaldian, Maria Solana Hezkuntza kontseilariak “Nafarroarentzako estrategikoa den sektore honetara motibatutako gazteak erakartzeko dugun erronka” azpimarratu du. Gainera sektore horietako formazioak urteotan, bai teknologikoki, bai merkatuari begira moldatzeko egindako aurrerapausoak nabarmendu ditu, “gure etorkizuneko gazteak hezkuntza eskaintzaren baitan duten beste aukera bat baitira espezializazio hauek”.

Nafarroako Foru Erkidegoak egun 529 ikasle ditu nekazaritza, basogintza eta elikagaien ekoizpenarekin lotutako formazioa duten ikastetxeetan: Nekazaritza eta Basogintza Zentro Integratua, San Adriango Ega DBHI eta Peraltako Ribera del Arga DBHI ikastetxeetan. “Zentro bakoitzak bere eskaintza propioa egiten du, baina elkarlanean ari dira praktika berrien aldeko apustua egin ahal izateko gazteak sektorerara erakartzeko asmoz”, adierazi du Solanak. Hala, esaterako, iaz 19 ikaslek europar proiektuetan parte hartzeko aukera izan zuten.

### Elkartea

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumena formazioa bultzatzea xede duen Europa-España elkarteak, besteak beste, honako helburuak ditu:

nekazaritzako formazioa hobetzea, ikasle zein irakasleek formazio teorikoa eta praktikoa jaso dezaten herrialdeen arteko trukeak antolatzea, hezkuntza programa bateratuak eta ikerketa nahiz ekintzak sustatzea landa eremuaren garapena ahalbidetzeko, agronomia-irakaskuntzarekin batera.